

### **3. FUNTSEZKO ELKARTEAK**

Bertan lan egingo duten langileak honako hauek izango dira eta beraiek hainbat egiteko edukiko dituzte. Aipatu beharra kideok hezitzaileak garela, baina hala eta guztiz ere, bestelako ezagutzak ere baditugu.

- **Joseba Sagastume:** Bi eginkizun edukiko ditu. Alde batetik, animaliekin eginiko ekintzak bideratuko ditu adibidez; haurrak zaldi gainean ibiltzen erakutsiko die, baita animalien zaintzaren inguruko argibide edo pausoak erakutsiko dizkie ere. Beste alde batetik, naturarekin zerikusia duten ekintzetan ere parte hartuko du, hala nola, baratzean landatzen diren elikagaien zaintza eta mantenuaren inguruan arduratuko da.
- **Julen Fernandez:** Hurrekin burutuko ditugun tailerretaz arduratuko da, hala nola, buztinarekin egindako tailerrak, naturako materialekin ere egingo ditugu tailerrak hala nola, hostoekin, makilekin... zestoak egiteko egurrekin etab. Margoekin ere egingo ditugu, tenperak eta margo estilo ezberdinak nahastuz. Urarekin ere esperimintatu egingo dugu.
- **Ane Lakunza:** Hurrekin egingo diren jolasetaz arduratuko da. Egunero jolas ezberdinak egingo ditugu, adibidez, gin khanak, musika jolasak, joko herrikoiak etab. Hau guztia burutzeko beste hezitzaileen laguntza izango du baina bera izango da arduradun nagusia. Horrekin batera bera arduratuko da lehengo egunetan elkar ezagutzeko dinamikak burutzen.

- **Nagore Villoslada:** Irteeretaz arduratuko da. Irteeren xedea izango da inguruko mendiak ezagutzea. Baita ere inguruko herriak bisitatzea, bertan goiza igarotzea edo egun pasa egitea. Beti ere natura errespetatuz. Hemen ere, beste hezitzaileen laguntza izango du baina beti ere bera izango da irteeren arduraduna.
- **Sukaldaria:** Sukaldariak eguneroko gosaria, hamaiketakoa, bazkaria, merienda eta afaria prestatuko ditu eta Udaletxeak finantzatuko du.